


Gazteen % 82k erreklamatu egiten dute kontsumitutako produktu edo zerbitzuren batekin arazorik izanez gero

Martxoak 15 **Kontsumitzaileen Eskubideen Mundu-mailako Eguna** dela eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k horren inguruko datu batzuk plazaratzen ditu, Euskadiko 30 urtez azpiko gazteek kontsumitzen dituzten produktu edota zerbitzuekin arazorik izanez gero erreklamatzeko ote duten ezagutzeko, hain zuzen ere.

Erositako produktu batekin edo kontratatutako zerbitzu batekin arazorik izanez gero, hamar gaztetik zortzik sarritan erreklamazioa egiten dutela diote (% 81,4). % 13,8k batzuetan bakarrik erreklamatzeko ote dute eta beste % 3,8k ez dute erreklamatzeko ote inoiz edo ia inoiz ez. Gainerako % 1ek ez du erantzun.

Arazorik izatekotan erreklamazioa egitea gazteen artean finkatua dagoen jokaera dela esan dezakegu, sarritan egiten dutenen kopurua antzekoa baita 2010ean (% 81,9) eta 2013an (% 81,4).

Mutilek neskek baino gehiagotan erreklamatzeko ote dute (sarritan % 82,8 eta % 79,9 hurrenez hurren). Eta beren burua klase sozial altuko edo ertain-altuko gisa definitzen dutenek maila baxukoak edo ertain-baxukoak direla diotenek baino gehiago erreklamatzeko ote dute (% 83,5ek eta % 77,1ek, hurrenez hurren).



Datu horiek Gazteen Euskal Behatokiak egindako ikerketa batetik datoz. "[Kontsumo arduratsuaren ohituren bilakaera EAEko gazteen artean 2010-2013](#)" da ikerketa horren izenburua. Bertan kontsumo arduratsuekin lotutako hainbat jokabideren bilakaera (2010-2013) aztertzen da. Ikerketa hori gauzatzeko Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1512 gazte elkarrizketatu ziren 2013 urtearen bukaeran, eta beraien erantzunak hiru urte lehenago adin bereko horrenbeste gazte emandakoekin konparatu ziren.